BIZITEGI ERAIKINA — HERNANI 23

D MAILA



Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1872

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina, lau goi oin eta bosgarren bat txapitula handi “bikoitz” gisakoa. Harlanduzko fatxada goi oinetan, eta oso aldatua behe oinean. Jatorrizko begiratokiak ditu 1. eta 2. oinetako ezkerraldeko baoetan, eta 3. eta 4. oinetan desagertu diren begiratokien aztarnak hautematen dira. Apaindurari, konposizioari, sekzioari, egiletzari eta datari dagokionez eraikin mugakideen (Andia 7ren eta Hernani 25en) berdina da.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. goi oina (txapituladun teilatupea).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* 3. eta 4. oinetan kendutako begiratokiak birjartzea, ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.